# Bestelako Xedapenak

**KULTURA SAILA**

**845**

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 12koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Arbiganoko (Erribera Goitia, Araba) Santa Isabel eliza monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Arbiganoko (Erribera Goitia, Araba) Santa Isabel elizak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko ebazpen-proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Arbiganoko (Erribera Goitia, Araba) Santa Isabel eliza, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskineko mugaketarekin eta II. eranskineko deskripzioarekin bat etorriz.

***Bigarrena***.– Arbiganoko (Erribera Goitia, Araba) Santa Isabel eliza Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan, monumentu izendapenaz, sartzeko espedientea jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai.

***Hirugarrena***.– Ebazpen hau interesdunei, Erribera Goitiko Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol eta Hirigintza eta Ingurumen Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**845**

RESOLUCIÓN de 12 de diciembre de 2008, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, de la Iglesia de Santa Isabel, sita en Arbígano, Ribera Alta (Álava).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta la Iglesia de Santa Isabel, sita en Arbígano, Ribera Alta, atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

***Primero***.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, de la Iglesia de Santa Isabel, de Arbígano, Ribera Alta (Álava), conforme a la delimitación que figura en el anexo I y la descripción obrante en el anexo II.

***Segundo***.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, de la Iglesia de Santa Isabel, de Arbígano, Ribera Alta (Álava), para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

***Tercero***.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Ribera Alta y a los Departamentos de Cultura, Juventud y Deportes y Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del

15 eguneko epean alegatu eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

***Laugarrena***.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 12a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

I. ERANSKINA

Mugatzea

a) Mugatzearen deskribapena.

Mugatutako eremuaren barne geratzen dira, bai eliza bera, bai haren ingurua. Beraz, eremuak honako muga hauek ditu: iparraldean, 30 m-ko lur-zerrenda, fatxadarekiko paraleloa dena; ekialdean, 30 m-ra dagoen lerroa, fatxadarekiko paraleloa dena; mendebaldean, 30 m-ra dagoen lerroa, fatxadarekiko paraleloa dena; hegoaldean, lerro bat, Arbiganorako bideak hego-ekialdetik mugatzen duena eta hego-mendebaldera jarraitzen duena mendebaldeko mugaraino, planoan ikus daitekeen bezala.

b) Mugatzearen justifikazioa.

Proposatutako mugatzearen arrazoia da Arbiganoko Santa Isabel elizaren inguruak duen balioa babestu behar dela, bai ingurumenaren ikuspegitik eta baita ikusteko duen balioa dela eta. Ingurua mugatu behar da, ondarea babesteko eta balioesteko. Horretarako, elizaren inguruko eremua (lurra eta elizarako sarbidea) zaindu behar da, elizaren berezko izaera babestearren. Beraz, mugatzean ez da soilik eraikina kontuan hartuko, elizaren ingurua ere aintzat hartuko da. Hegoaldeko mugaren lerroa irregularra da, eraikinak baitaude han. Eraikin horiek errespetatu behar direla erabaki da; beraz, Arbiganora sartzeko bidea eta eraikin horiek osatutako lerroa jarri dira mugatzat.

Territorio del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

***Cuarto***.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Álava para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de diciembre de 2008.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

ANEXO I

Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, al propio edificio en sí y, por otro, al entorno que lo circunda. Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al N una franja de 30 m paralela a esta fachada; al E una línea paralela a la fachada y distante 30 m; al W una línea paralela situada a 30 m de la fachada; al S una línea que en su lado SE limita con el camino de acceso a Arbígano y en el SW continúa esa delimitación hasta que alcanza la línea límite W, como se puede apreciar en el plano.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno de la Iglesia de Sta. Isabel de Arbigano. La delimitación del entorno, necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes a la iglesia, ocupados por los terrenos y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio de la iglesia. Por ello, esta delimitación incluye no sólo la edificación de la iglesia propiamente dicha sino también el entorno que la rodea. La irregularidad de la delimitación en su lado S viene determinada por la existencia de edificaciones en ese lado por lo que se ha visto necesario respetar esas edificaciones tomando como límite el camino de acceso a Arbigano y la línea que forman esas edificaciones.


Montarredo
600
-4317
ARBIGANO
Acceso
575.8
Arroyo
a
ESKALA / ESCALA
30 0 30 60 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
ARBIGANOKO SANTA ISABEL ELIZA
Babes eremuaren mugaketa
Delimitación del entorno de protección
Lurraldea / Territorio: ALAVA
Udalerria / Municipio: RIBERA ALTA
Data / Fecha: 04/11/2008
Eskala / Escala: 1:2000

II. ERANSKINA

Deskribapena

Gurutze latindarreko oinplanorik ez duen parrokia-eliza da. Burualdea estuagoa du, pinoian. Harlanduz, harlanduskaz eta luzitutako harlangaitzez egina dago. Elizaren bolumenak gurutze latindarreko oinplano-arekin bat egiten du iparraldean. Ipar-mendebalde-an antzinako hilerria dago, horma batez inguratuta. Hegoaldean, berriz, bolumena prisma-formakoa da, sakristia eta elizpea gurutze-besoaren lerroraino iristen baitira. Hego-ekialdean prisma-formako kanpandorrea du. Kanpaien gaineko arkuak puntu-erdikoak dira, eta estalkia lau isurikoa. Hegoaldeko arkua hormatuta dago eta erlojua dago han. Dorrearen hego-ekialdea eta he-go-mendebaldea horma-bular sendoz indartuta daude, pitzadurei eta ezegonkortasunari aurre egitearren.

Hegoaldetik du sarrera; puntu-erdiko elizate handia eta luneta-ganga zeharkatu behar dira elizara sartzeko. Sarrerak ateburu xumea du. Nabeak hiru atal eta buru-aldea ditu, azken hori luneta-gangaz egina. Beste hiru atalek ertz-ganga dute, lore handiekin. Kaperak kanoi-gangaz estalita daude. Epistola-kaperan, iparraldean, harlandua nabarmentzen da, nahiz eta luzituta egon; moldurazko sarrera-arkua eta inposta ditu. Nabearen muturrean koru altu bat dago, egurrezko karela duena. Sakristia txikia da, angeluzuzena, eta sabai soila du.

ANEXO II

Descripción

Es un templo parroquial exento de planta de cruz latina con cabecera más estrecha en hastial. La fábri-ca con la que está hecho comprende sillería, sillarejo y mampostería revocada. El volumen de la iglesia se corresponde con la cruz latina de la planta en el lado norte y en su lado noroeste, cerrado por un muro se sitúa el antiguo cementerio. En cambio, en el lado sur el volumen es prismático ya que la sacristía y el pórtico alcanzan la línea del brazo de la cruz. En el lado suroes-te se halla el campanario que es prismático con arcos de medio punto para las campanas y techado con una cubierta a cuatro aguas. El arco del lado sur está tapiado y en él hay colocado un reloj. La torre, en sus extremos sureste y suroeste, está reforzada con sendos contrafuer-tes para paliar el agrietamiento que sufre y su posible inestabilidad.

Se accede al interior desde el lado del Mediodía por pórtico con amplio arco de medio punto y bóveda de lunetos. El acceso es de dintel sencillo. La nave es de tres tramos y cabecera, ésta con bóveda de lunetos. Los otros tres tramos están cerrados por bóveda de arista con florones. Las capillas están formadas por bóvedas de cañón. En la de la epístola, al lado norte, se nota la sillería aunque esté revocada y tiene un arco de ingreso moldurado e imposta. En el extremo de la nave hay un coro alto con antepecho de madera. La sacristía es un reducido espacio rectangular de cielo raso.